

## Azaroak 26an, gazteok Altsasura!

---

IKASLE ABERTZALEAK - ERNAI, GAZTE ANTOLAKUNDEA :: 23/11/2016

“Titular guztiak guri buruz dira baina ez digu inork ezer ere galdetu” Berri Txarrak taldeak kantatzen dituen hitzak ezin hobeto egokitzen dira Altsasuko egoerari.

“Titular guztiak guri buruz dira baina ez digu inork ezer ere galdetu” Berri Txarrak taldeak kantatzen dituen hitzak ezin hobeto egokitzen dira Altsasuko egoerari. Ezin hobeto antolatutako zirko mediatikoari esker, Altsasu, bere gazteria eta herri mugimendua jo puntuan jarri ditu oligarkia mediatikoak.

Herri honetako pasarte ilunenak idatzi ditu Guardia Zibilak baina hedabide askok lan handia egin dute dena manipulatzeko. Poliziaren gezurrezko bertsio ofiziala jaso, titulua jarri eta inprentara zuzen-zuzenean. Lan profesionala. Gazteok aspaldi ikasi genuen ordea, lerro arteak irakurtzen, hitzen sakonera argitzen, gezurak gezur direla pentsatzen.

Jakin badakigu zer den gazte konprometitua izatea Herri honetan. Eta jakin ere badakigu zein izan den Guardia Zibilaren jarrera gazteekiko. Horregatik, zeuden Altsasuko gazteak aldeztu aurretik jo puntuan. Horregatik, erabili dituzte tabernako gertakariak Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera berresteko.

Muntai polizial, zirko mediatiko eta antzerki politiko-judizialak sortutako zurrumbiloaren erditik, gure babes osoa bidali nahi diegu espetxeratutako zein inputatutako gazteei eta beraien senideei. Gure babes osoa doakie baita Altsasun egunero-egunero borrokan dabilzan gazte guztiei, haien konpromisoa baloreen jarritz.

Horregatik, Azaroaren 26an Altsasun ospatuko den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu nahi diegu Euskal Herriko gazteriarri. Zabaltzeko deia azaroaren 23an heziguneetan gure elkartasun keinuak!

Kriminalizaziorik ez!

Utzi bakean Altsasu! Utzi Bakean Euskal Gazteria!

**Ikasle Abertzaleak**

**Ernai, gazte antolakundea**

---

<https://eh.lahaine.org/azaroak-26an-gazteok-altsasura>